

Gorbeialde LGetik Nerbioi Garaiko ETE industrialak laguntzen ditugu euren estrategia komertziala hobetzen, SALBIDE 2022 proiektuaren bidez.

Bizkaia Orekan Sakonduz programaren barruan, Gorbeialde LGEk, Bizkaiko eskualdegarapeneko beste eragile batzuekin batera, SALBIDE 2022 proiektua definitu eta abian jarri du. Ekimen honen helburua **Nerbioi Garaiko Eskualdeko (Zaratamo, Ugao, Arrankudiaga, Zeberio, Arakaldo eta Orozko) industria enpresa txiki eta ertainei euren merkataritza estrategia hobetzen laguntzea** da, bezero zorroaren dibertsifikazioan eraginez. Gorbeialde LGEk, kanpoko aholkulari baten laguntzarekin eta Bizkaia Orekan Sakonduz programaren finantzaketarekin, enpresei euren merkataritza-trebetasunak hobetzen laguntzen diegu eta beraz produkzio eta fakturazio aukerak handitzen. Zehazki, enpresei honako laguntza hau ematen zaie: Enpresen egoera aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea merkataritza-dokumentazioari dagokionez, bezero potentzialen base bat egitea, merkataritza-elkarrizketak lortzeko kontaktuak egitea, merkataritza-eskaintzak lortzea eta etorkizunean erabili beharreko metodologian irakastea.

Gorbeialde LGEk lehen aldiz parte hartzen du programa honetan eta bertan 3 ETEk parte hartu dute. Gorbeialde LGEk 2023an programa honekin jarraitzearen aldeko apustua egin du, eskualdeko enpresa txikientzat tresna ona delako.

2022an programan parte hartu duten enpresak hauek dira:

- Zaratamoko **Raisa Film de Polielitano, S.L.**
- Arakaldoko **Gráficas Arakaldo, SCL**
- Arrankudiaga-Zolloko **Industrias Garena, S.L.**

SALBIDE 2022 proiektua **Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskualdeko Lehiakortasuna Bultzatzeko Programak** finantzatzen du eta **Bizkaia Orekan Sakonduz** ekimenaren barruan dago.